

15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babestari buruzkoa

15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babestari buruzkoak, aurrez ikusten duenerako, jakinarazten zaizu datu pertsonalak **CENTRO DE SCANNER DE VIZCAYA, S. A.** enpresaren fitxategietan sartuko (edo eguneratuko) direla. Aipatutako enpresak Bilboko (48014) (Bizkaia) Ballets Olaeta kaleko laugaren zenbakian helbidea du.

Datuak tratatzearen helburua eskatutako proba medikoaren analisisa eta diagnostikoa egitea izango da.

Dokumentu honetan eskatzen diren datu pertsonalak derrigorrezkoak dira; beraz, betetzen ez badira, ezingo dira arestian deskribatutako fitxategietan sartu eta, ondorioz, ezingo da aurreko paragrafoan deskribatutako helburua bete.

Era berean, klinika kolaboratzaileei (Clínica Vicente San Sebastián TC 64, S. L., Centro de Diagnóstico San Juan de Dios. S. A., Centro de Diagnóstico Virgen Blanca, S. A., Radiología Clínica Vizcaya, S. L., Centro de Diagnóstico Durango, S. L. eta Resonancia Magnética Bilbao, S. A.) egin behar diren proba medikoen eta jada egin direnen datuak jakinarazteko baimena ematen duzu, diagnostiko zuzenagoa egin ahal izateko. Jakinarazpena baimentzen ez baduzu, zentroko informazio-mahaian adieraz daiteke, beste galdeketa-eredu bat eskura diezazuten.

Datuak lortu, zuzendu, deuseztatu eta kontra egiteko eskubidea duzu, Legeak aurrez ikusitako baldintzetan. Eskubide hori idatziz erabili ahal izango da. Idazkia horien arduradunari zuzendu beharko zaio, arestian aipatutako helbidean.

BAI baimentzen dut

EZ dut baimentzen

BERRI EMAN ZAION PAZIENTEAREN SINADURA


Jn./And.:

NAN zk.:

**OTA-RI BURUZ BERRI EMAN OSTEAN, BAIMENA
CENTRO DE SCANNER DE VIZCAYA, S. A.**

PAZIENTEA: _____

DATA: _____



OTA EGITEKO ARGIBIDEAK ETA BERRI EMAN OSTEAN BAIMENA

Zure medikuak eskatu ondoren, erradiologia-azterketa bat egingo duzu.

OTA azterketak, X izpiak erabilia, azterlanaren xede diren organismo-zatien barneko egituren irudiak hainbat plano eta bolumenetan eskuratzea ahalbidetzen du. Hala lortutako irudiekin, mediku erradiologoak anomaliei buruzko txostena egin ahalko du.

Zer arrisku ditu?

Aztertze X izpiak erabiltzen dira eta jasotzen den erradiazio-kantitatea txikia da eta betiere Erradiologia Babeserako Nazioarteko Batzordeak zehaztutako legezko mugen barruan dago

Erradiologia-azterketak haurdunaldian ez dira gomendagarriak; beraz, haurdun bazaude edo hala izan daitekeela uste baduzu, aipatu hasi baino lehen.


Kasu batzuetan, baliteke zainaren bitartez iodoz osatutako kontraste-substantzia sartu behar izatea, organo eta egitura zehatzak hobeto ikusteko. Zaina ziztatzen denean, puskatu eta kontraste-materiala besoko alde bigunetarantz ateratzearen arrisku txikia dago. Pazienteen oso ehuneko txikian zainan sartzen den kontrastearekiko alergia-erreakzioak izan daitezke eta, salbuespenez, larri bihur daitezke. Sartzen den bitartean, goragalea, beroa edo hotza senti daitezke eta berehala desagertzen dira.

Erabiltzen den kontrasteak iodoa du nagusiki eta hainbat erreakzio sor ditzake:

Erreakzio arinak: orbanak, pikorrak, eztarri-azkura, gorritasuna.

Erreakzio larriak: erreakzio hauek, ohiz, tratamendu konplexuagoarekin zuzentzen dira eta kalteren bat sor dezakete. Horien barruan sartzen dira arnasteko zailtasuna, bihotz-arritmia, dardarak, giltzurruneko gutxiegitasuna edo konortea galtzea. Halako erreakzioa %0,04 kasutan (10.000 pazientetatik 4) gertatzen da.

Jakin behar duzu zein pertsonatan sortuko den alergia-erreakzioa ezagutzeko, gaur egun ez dagoela alde aurretiko probarik.



Sexua: _____ Adina: _____ Pisua: _____

Azterketaren egunean zerbitzura azaldu zaizkizun argibideekin etorriko zara.

Azterketa berme gehienekin egiteko, honako galdera hauei erantzutea eskatzen dizugu:

1. Aldez aurretik azterketa hau egin al dizute?
.....
2. Zainetan iodoz osatutako kontrastea sartu al dizute?
.....
3. Alergia-erreakziorik izan al zenuen?
.....
4. Beste substantzia batzuekiko aurrekari alergikoak al dituzu?
.....
5. Giltzurrunetako gutxiegitasuna al duzu?
.....
6. Diabetikoa al zara? Erantzuna baiezkoa izanez gero, zer tratamendu jarraitzen duzu?
.....
7. Emakumezkoa izanez gero, haurdun al zaude?
.....

**INFORMAZIO EDO ARGIBIDEREN BAT BEHAR IZANEZ GERO, BELDURRIK GABE GALDETU
PROBA HASI BAINO LEHEN**

BAI EZ Eskanerra egiteko baimena ematen dut.

BAI EZ Zainetan iodoz osatutako kontrastea sartzeko baimena ematen dut.

BERRI EMAN ZAION PAZIENTEAREN SINADURA

Jn./And.:..... NAN zk.: